


2020-2021 IKASTURTEKO KUDEAKETA TXOSTENA ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA



Indizea

1. Azpiegiturak eta baliabideak	3
2. Garapen akademikoa eta ikerketa garapena	4
3. Esperientzia Gelak.....	8
4. Hizkuntza garapena	11
5. Ekintzailtza eta laneratzea	13
6. Kalitate, prebentzio eta ingurumen programak.....	17
7. Unibertsitate hedakuntza	19

** COVID-19aren pandemiak sortutako osasun larrialdiko egoeraren ondorioz, 2020-21 ikasturterako programatutako jarduera batzuk atzeratu, eten edo online formatu batera egokitu behar izan dira.*

1. Azpiegiturak eta baliabideak

1.1 UPV/EHUko eraikinetako azpiegituren plan baterako oinarriak ezartzea, non eraikin bakoitzak bere jarduerak egiteko beharrezkoak dituen eraberritze lanak jasoko diren, instalazioen erabiltzaileen segurtasunerako neurriak ezarriko diren eta irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko neurriak bultzatuko diren. Eraikinen mantentze lan prebentiboa lehenetsiko da.

Egoeraren lehendabiziko diagnosi bat egin da, UPV/EHUren eraikin bakoitzean egin beharreko erreforma nagusiak identifikatuz. Halaber, azpimarra jarri zaio eraikinetan aurretiko mantentzeari.

1.2 Erreforma, hobetze eta egokitzeko esku hartzeen plana ikastegi ezberdinetan gauzatzea.

Eraikinen arriskuen ebaluazioetatik eratorritako hobekuntza jarduketei dagokienez, Farmazia Fakultateko sektorizazioa hobetzeko bigarren faseari dagozkion lanak egin dira; era berean, pabiloiko barrako pertsiana motorizatu da, orain arteko poleen sistema ordezkaturaz; era berean, Micaela Portilla Ikerguneko pasabidearen segurtasuna hobetu da, kristalezko itxitura batekin.

Baldintza akustikoak, argiztapen baldintzak eta abar hobetzeko hainbat jarduketa gauzatu dira hainbat ikastegitako ikasgela, laborategi eta zirkulazio eremuetan (Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen egoitza eraikina, Ingeniaritza Eskola, Farmazia Fakultatea, Letren Fakultatea, Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea).

Letren Fakultateko ekialdeko eta hegoaldeko fatxadetako 2. solairuan leihateak aldatu dira aluminiozko eta beira klimatikoko arotzeria berriarekin eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen Kirola ataleko zenbait laborategitan.

Pintatze lanak egin dira campuseko hainbat eraikinetan.

Gres estaldura bat jarri da Ekonomia eta Enpresa Fakultateko gela baten zoruan.

Elurretako lehengo kaperaren eremuko sabaia konpondu da.

Campuseko eraikin nagusietako ate automatikoen berrikuspen eta mantentze lanak egin dira, irisgarritasun unibertsala bermatzeko.

Kontrolerako erakunde baimenduen (KEB) ikuskapenak egin ondoren, lan elektrikoak egin dira hainbat eraikinetako TBko koadroetan, bai eta igeltserotza, arotzeria, iturgintza lanak eta abar ere, ikastegiak behar bezala mantentzeko.

52/21 PL izapidetu da Arabako Campuseko eraikinetan zenbait lokal berritzeko obrak egiteko. Lan horiek 2021eko ekitaldiko azken hiruhilekoan gauzatuko dira (2021-22 ikasturtea).

1.3 Arabako Foru Diputazioekin elkarrizketak hasia, UPV/EHUra mezenasgoaren zerga harremanak hobetzeko.

Bilera bat egin da Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako diputatuarekin, Ogasuneko zuzendariarekin eta Arau Garapenerako Zerbitzuko buruarekin. Bilera horretan proposatu da ENLIGHT Partzuergoa eta UPV/EHUK GIHak lortzearekin lotutako jarduerak sartzeko mezenasgoko lehentasunezko jarduerak zehazten dituen urteko Foru Dekretuan. Era berean, beharrezkotzat jo da orain arte jasotako jarduerak eguneratzea, Euskampus proiektua, esaterako, duela urte batzuk amaitu baitzen. Idatziz helaraziko zaizkio Foru Dekretua eguneratzeko proposamenak.

2. Garapen akademikoa eta ikerketa garapena

2.1. Ikastegiak bisitatze eta haiekin biltzeko programa bat garatzea, zuzendaritza taldeei hudeaketa lanean laguntzeko.

Komunikazio arina izan da campuseko ikastegi guztietako zuzendaritza taldeekin, eta 2020-21 ikasturtearen amaierako bilera bat egin zen ekainean. Bilera horretara ikastegietako dekanok eta zuzendari guztiak deitu ziren.

Bisita programari dagokionez, 2021/22 ikasturtean egingo dira.

2.2. Ikastegiek campusetako eskaintza akademikoa areagotzeko egindako ekimenak bultzatzea eta babestea.

Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzako Errektoreordetzari Gasteizko Ingeniaritza Eskolak Geoinformatika eta Azterketa Geoespazialeko Masterra ezartzeko eskatu dio. Gaur egun graduondoko berezko titulua da.

2021-22 ikasturtean Farmazia Fakultatean titulu propio berri bat irakatsiko da, Farmazia eta Elikagaien Zientziak saileko irakasle baten zuzendaritzapean.

2.3. Ikastegiko eta campuseko unibertsitate-enpresa ikasgelen sorrera babestea.

Bilera bat egin da Tecnaliako Negozio Estrategiaren zuzendariarekin, campuseko unibertsitate-enpresa gela bat sortzeko aukera aztertzeko. Bilera horretan Tecnaliak Ingeniaritza Eskolarekin, Farmazia Fakultatearekin eta Lascaaray Ikergunean dagoen Joint Research Laboratory on Advanced Pharma Development (JRL-ADP) gunearekin dituen lankidetzak aztertzea erabaki zen, gela hori sortzeko abiapuntu moduan.

2.4. GJHen inguruan egindako ikerketak eta prestakuntza nabarmentzea.

Asmoen akordio bat sinatu da EHUren eta hainbat erakunderen artean (Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Udala, Bioaraba Osasun Ikerketako Institutua, Vital Fundazioa, Arabako Farmazialarien Elkargo Ofiziala, BIC Araba, AMVISA eta Aquadat), farmakologiaren arloan berrikuntza programa bat garatzeko Gasteizen eta Araban. Programa horren helburua da sendagaiek eragindako ingurumen kutsadurarako konponbideak ikertzea eta aplikatzea. Programa hori Farmazia Fakultateko irakasle batek gidatzen du, eta protokolo orokor honen garapenetik eratorritako jarduerak alderdi sinatzaileen artean sinatutako berariazko hitzarmenen bidez gauzatuko dira.

2.5. Komunikazio zientifikoko programa erraztea, zenbait egitura eta ekitaldiren bidez.

Zientzia Astea 2020 antolatzeko, elkarlanean aritu gara Zientzia eta Gizarte Garapeneko eta Transferentziako Errektoreordetzarekin, azaroaren 6tik 8ra. Edizio honetan, pandemia zela eta, erabaki zen, ekitaldia egin baino bi aste lehenago, aurrez aurre programatutako jarduera gehienak bertan behera uztea,

eta formatu horretara egokitu ahal izan zirenak eta hasieratik online programatu zirenak formatu birtualean eskaintzea.

2.6. Irakasle eta ikertzaileen gaitasunak eta kualifikazioa hobetzeko jarduerak garatzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan.

Arabako Campusean irakasle eta ikertzaileen eta graduondoko ikasleen beharrian espezifikoak eta zeharkakoak bete daitezten bideratutako "Ikerketari Laguntzeko Mintegi Iraunkorra" izeneko deialdiaren esparruan, prestakuntza eskaini da IRIren gaitasunak hobetzera bideratuta.

2020-21 ikasturtean 5 ikastaro antolatu dira, eta guztira 46 emakume eta 61 gizon bertaratu dira:

- Ekonomiaren oinarriak, denok dakizkigunak baina inoiz azaldu ez zizkigutenak: ekonomiari buruzko kontzeptuak giza zientzietako ikertzaileentzat.
- Curriculum zientifikokoaren hedapena eta ebaluazioa: seiurtekoen deialdia.
- Ikerketa zientifikorako analisi bibliometrikoko tresnak kudeatzea.
- Joera historiografiko eta ikerketa metodologia berriak. Aro Modernoko historia ekologikoa eta geoboterea.
- Power BI, informazioa aztertzeke, bistaratzeko eta transmititzeko tresna interaktibo gisa.

2.7. Prestakuntza eskaintzaren, programa osagarrien eta bestelako jardueren komunikazioa erraztea.

Campuseko ikastegiei eta UPV/EHUko errektoreordeei laguntza eman zaie prestakuntza eskaintza arautua (graduako eta graduondoko titulazio berriak) nahiz prestakuntza osagarria zabaltzeko, bai eta unibertsitate komunitateari zuzendutako jarduera guztiak zabaltzeko ere.

2.8. Unibertsitate aurreko ikasleei zuzendutako jarduerak antolatzea, gaitasun zientifiko-teknikoak gara ditzaten.

Pandemia dela eta, ez da antolatu AGORA Teknocamp udako campus teknologikoa. Jarduera hori Arabako Foru Aldundiarekin, Egibiderekin, Ikaslan Arabarekin eta Innobasquerekin elkarlanean egin da azken urteotan.

2.9. Koordinatu UPV/EHUren Udako Ikastaroak Fundazioarekin, Arabako lurralde historikoan egiten diren ikastaroetarako.

Aurten, UPV/EHUren Udako Ikastaroen 40. edizioaren barruan, Arabako Campusean 5 ikastaro antolatzen lagundu da, formatu bimodalean (presentzian eta online):

- 4.0 enpresa: digitalizazioa eta informazioaren teknologiak, enpresa lehiakortasunaren iturri gisa. Ekainak 17.
- Indarkeria politikoa, nazionalizazioa eta estatua: Teoria Soziala eta Historia. Uztailak 1 eta 2.
- Ardoa 2021. Jasangarritasun ziurtagiriak. Nola balioetsi upeltegien kontakizunean. Uztailak 8.
- Gasteizko Nazioarteko Zuzenbide eta Nazioarteko Harremanei buruzko ikastaroak. Uztailaren 13tik 16ra.
- Frankismoaren itzala trantsizioan. Irailak 24.

Gainera, BBVA Fundazioak Bilbon duen egoitzan udako ikastaroak aurkezteko prentsaurrekoan izan gara, bai eta campusean egindako ikastaroen inaugurazio jardunaldietan ere.

2.10. Lurralde Historikoko eta EAEko erakunde publikoekin, eragile sozioekonomikoekin eta erreferentziazko kanpo erakundeekin (Eustat, Emakunde, Arartekoa, Osakidetza, etab.) harremanak estutzea eta lankidetzan aritzea, praktikak, GRAL, MAL, doktorego tesiak eta abar egiteko lankidetzak hitzarmenak formalizatzeko eta zerbitzuak kontratatzeko.

Bilerak egin dira SEA Arabako Enpresekin, Arabako Teknologia Parkeko zuzendariarekin eta Basque Health Clusterreko zuzendariarekin, lankidetzarako bide posibleak aztertzeko. SEArekin egindako bileran, transferentziari buruzko

jardunaldi bat antolatzea proposatu zen, Zientzia eta Gizarte Garapen eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan.

Gasteizko Udaleko Industria Mahaiak antolatutako saioetan parte hartu dugu, Arabako Campusaren ikuspegia bigarren 21-24 Industria Planean txertatzeko eta plan hori garatzeko balizko lankidetzak bideak aztertzeko.

3. Esperientzia Gelak

3.1. Giza Zientziak titulazioaren irakaskuntza antolatu.

Giza Zientzien titulazioa antolatu da, lau urteko iraupena duena, enborreko 18 irakasgairekin eta hautazko 22 irakasgairekin. 2020-21 ikasturtean, irakaskuntza presentzialtasun egokituaren modalitatean eman da.

3.2. Adinekoen unibertsitate ikastaroak (AUI) eta ikastaro osagarriak planifikatzea eta garatzea.

AUI ikastaroak egin dira, karreran zehar ikasi ez ziren hautazko irakasgaiekin eta Historia, Artearen Historia eta Geografia eta Lurralde Antolaketako graduen irakaskuntza arautuko planetako irakasgaiekin. Pandemia dela eta, 2020-21 ikasturtean ez dira irakaskuntza arautuko irakasgaiak eskaini.

Hamar ikastaro osagarri egin dira, irakasle espezializatuek emanda.

3.3. Esperientzia Geletako ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen arlo akademikoaz kanpoko jarduerak antolatu.

Irailaren 25ean eta 26an Harrera Jardunaldiak egin dira 1. mailako ikasleentzat. Horietan, titulazioari buruzko informazioa jaso dute eta UPV/EHUren webgunearen erabilerari buruzko tailer bat egin dute.

Esperientzia Gelak zabaltzeko eta komunikatzeko ekintzak egin dira matrikulazioa sustatzeko: iragarki bana argitaratu da El Correo eta El Diario de Noticias de Álava egunkarietan, eta elkarrizketa batzuk egin dira prentsa idatzian (El Correo) eta irradian (Euskadi irrati eta Radio Vitoria). UPV/EHUko

komunikazio bulegoarekin lankidetzan, Esperientzia Gelen irudi korporatiboa eguneratuta dago (kartelak eta informazio-triptikoak).

Hainbat jarduera osagarri egin dira irakasgaien programak osatzeko eta testuinguruan kokatzeko (hitzaldiak, museoetara bisitak, kultura ibilbideak, teatorako irakurketak, etab.). Ekintza horiek guztiek zabaldu egin dute Esperientzia Geletan eskainitako prestakuntza, eta motibazio erantsia eman diete ikasleei. Jarduera horiek batez ere online egin dira.

Pandemia egoera dela eta, 2020-21 ikasturteko Esperientzia Gelen inaugurazio eta itxiera ekitaldiak bertan behera geratu dira. Era berean, XVI. eta XVII. promozioetako graduazio ekitaldiak atzeratu ditugu.

3.4. *Ikasgeletako Ikasleen Kultur Elkartearekin (ACAEXA-AEIKE) lankidetzan aritzea.*

Esperientzia geletako ikasleei informazioa eta gonbidapena eman zaie ACAEXAk antolatutako hitzaldi eta jarduera guztietara, 2020-21 ikasturtean online izan baitira.

3.5. *Helduentzako Unibertsitate Programen Espainiako Elkartearekin (AECUM) lankidetzan jardutea.*

Beharrezko administrazio izapideak hasi dira Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzarekin, UPV/EHUren Esperientzia Gelak AEPUMen parte izan daitezen. Elkarte horretan parte hartu ahal izatea aukera estrategikoa da Esperientzia Gelen proiektua nazio mailan garatzeko.

3.6. *Ikasleek egindako "La voz de la experiencia / Esperientziaren Ahotsa" seihilabetekaria argitaratzea prestatu eta zabaltzea.*

"La Voz de la Experiencia" seihilabetekariaren 35. eta 36. zenbakiak argitaratu dira, eta hainbat erakundetara zabaldu da.

3.7. *Lankidetzan UPV/EHUko sail eta ikastegiekin, eta beste erakunde eta elkarte batzuekin, unibertsitateko gainerako ikasleentzat eta/edo hiritarrentzat irekita dauden jarduerak antolatzeko eta eskaintzeko.*

Ikasturtean zehar, lankidetzan aktiboa izan da Esperientzia Gelen programan parte hartzen duten sailekin, bai eta beste erakunde eta elkarte batzuekin ere, Esperientzia Gelen programan 55 urtetatik gorako unibertsitate komunitaterako bereziki interesgarriak diren jarduerak osagarriak egiteko. Azpimarratzekoa da ikasturte honetan jarduerak nabarmen murriztu direla pandemia egoeragatik, eta nagusiki online egin direla.

Lankidetzan jardun da UPV/EHUren Artearen eta Musikaren Historia Sailarekin, Kalearte Kultur Elkartearekin eta Gasteizko Teologia Fakultatearekin, Arte erromanikoari buruzko IV. jardunaldiak "Extra Locum. Arte erromanikoa bere sorlekutik kanpo" izenekoak, antolatzeko. Jardunaldiak online egin ziren urriaren 22an, 23an eta 24an.

Lankidetzan jardun da UPV/EHUren Adierazpen Musikalaren, Plastikoaren eta Korporalaren Didaktika Sailarekin 2020-21 ikasturteko bigarren lauhilekoan egin den "opera konfinatuaren zikloa" antolatzeko. Zikloak 6 hitzaldi izan ditu, opera eta zarzuela lanen online emanaldiarekin batera, eta amaierako hitzaldi kontzertu bat, "Veneziatik Parisera Granadatik pasatuz" izenekoak. Teatro Real, Zarzuela Teatroaren eta Vital Fundazioaren laguntza izan du hitzaldi zikloak.

3.8. Elkarrekiko informazio harremanak sortzea Arabako Aldundiaren Hirugarren Adinekoen Ikasgeletako eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Helduen Zentro Soziokulturaletako jarduerak eskaintzaren inguruan.

Esperientzia Gelen jardueren berri eman da Gasteizko adinekoen zentro soziokulturaletan, Vital Fundazioan eta Arabako Foru Aldundiko Hirugarren Adinekoen geletan. Gainera, erakunde horiek antolatzen dituzten jardueren berri eman zaie Esperientzia Geletako ikasleei. 2020-21 ikasturtean hainbat koordinazio bilera egin da hainbat eragilerekin, harremanak sendotzeko eta informazio kanalak sendotzeko.

4. Hizkuntza garapena

Atal honetako jarduera guztiak Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzarekin eta Gipuzkoako eta Bizkaiko campusetako euskara zuzendaritzekin elkarlanean egin dira.

4.1. Arabako Campusean Euskararen III. Plan Gidaria (2018-2022) garatzen jarraitzea.

Euskararen Gida Planaren garapen eta betetzea sustatzeko ekintzak garatu dira.

4.2. Euskararen erabilera unibertsitateko bizitzaren arlo guztietan areagotzeko jarduerak bultzatzea.

Arabako Campusak jarduera ugari ezarri ditu EUSKARALDIA ekimenaren bigarren edizioa (2020) unibertsitatearen eremuan garatzeko, proiektua Gasteiz hiriarekin koordinatuta sustatuz.

EHUskalariai deialdia egin eta kudeatu da, euskararen erabilera sustatzeko unibertsitateko kideen artean (ikasleak, IRIak eta AZPkoak barne).

Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxea kudeatzen duen Lazarraga Kultur Elkartearekin lankidetzan aritu gara, campusean zein hirian euskararen erabilera sustatzeko sinatutako hitzarmenaren esparruan.

Oihaneder Euskararen Etxea eta UEUren "Hitz Adina Mintzo" zikloan parte hartu da Karlos Zurutuzak emandako "Hitzaren jabeak: amazig eta kurdu herrien hizkuntz biziberritze prozesuak" hitzaldiarekin.

Gure campusean euskararen erabilera aztertzen jarraitu da, Euskal Soziolinguistika Klusterrarekin lankidetzan; horrela, gaztelaniaren eta/edo euskararen erabileraren erregistroa aztertu da campuseko zenbait ikastegitako elkarriketetan.

4.3. Eztabaida eta dibulgazio foroak bultzatzea, bai eta euskara tekniko-zientifikoa sustatzeko jarduerak ere.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzeko Errektoreordetzarekin lankidetzan, Ikergazte2021 4. edizioa babestu da, bai eta euskaraz argitaratutako unibertsitate aldizkariak argitaratzea ere (Tantak, Ekaia, Gogoia).

"Euskararen Arloko Errektoreordetzaren Euskarazko Hobekuntza Ikastaroak" hobekuntza ikastaroak antolatzen parte hartu dugu, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan.

4.4. Euskarazko irakaskuntza materiala egin, egokitu eta zabaltzen laguntzea.

Testu liburuak euskaratzeko jarduerak lagundu dira, bai eta liburuak eta bitarteko materialak euskaraz sortzekoak ere (Testugintza eta Ikasmaterialgintza deialdia).

Testuak campuseko ikastegietan eta Oihaneder Euskararen Etxean banatu dira.

4.5. Unibertsitateko hide bakarreko zein hide anitzeko organoen bileretan euskararen erabilera sustatzea.

Gure campuseko ikastegietako batzordeen bileretan euskararen erabilera sustatzeko eta errazteko ekintzak garatu dira.

4.6. Campuseko unibertsitate komunitatean atzerriko hizkuntzak ikas daitezen laguntzea.

2020-21 ikasturteko lehenengo lauhilekoan aurrez aurreko bi ikastaro eta online hiru ikastaro eskaini dira ingelesa garatzeko. Lehenengok, "Everyday English" eta "Communication Within Academic Environment", 10 parte hartzaile izan dituzte. Bigarrenetan ("Our Most Common Mistakes In Academic Writing", "Tips To Write Academic Articles 1" eta "Tips To Write Academic Articles 2"), batzaz beste, 23 pertsonak hartu dute parte.

Bigarren lauhilekoan beste deialdi bat egin da online, barne direla "Tips To Write Academic Articles 1" eta "Tips To Write Academic Articles 2" ikastaroak, batez beste, 25 pertsonak parte hartuta, eta "Ted presentations", berriz, 8 pertsonak.

Testu zientifikoak berrikusteko tutoretza zerbitzua ikasturte osoan egon da aktibo, eta eskaera handia izan du. Ikasturte honetan 14 testu berrikusi dira, eta guztiek banakako tutoretza saioa izan dute online. Lanen bat dagoeneko argitaratu da.

5. Ekintzailtza eta laneratzea

Jarduera hauek Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan egin dira.

5.1. INIZIA ArabaCampus programa garatzea Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroarekin (Bic Araba) lankidetzan, Arabako Campusean ekintzailtza eta oinarri zientifiko eta teknologikoko INIZIA enpresa haztegia bultzatzeko.

Kultura ekintzailearen hedapenaren esparruan, Arabako Campuseko INIZIA programa garatzeko hainbat jarduera egin dira, eta 200 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute.

5.1.1 Kultura ekintzailea sustatzea eta ikasleen eta irakasle eta ikertzaileen artean zabaltzea ekintzailtzaileen eta enpresa sorkuntzaren arloan eskainitako zerbitzuak.

Gasteizko Ingeniaritza Eskolan, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Araba Atala) eta Farmazia Fakultatean Ekintzen Ikastea proiektua garatu da, ikastegi horietako irakasleekin lankidetzan. 3 ikasgela ezberdinetako 45 ikaslek hartu dute parte.

Eusko Jaurlaritzaren Gazte Ekintzailtza Programaren antolaketan eta kudeaketan parte hartu da. Programa horren bidez, guztira 25 beka eman dira (horietatik 4 Arabako Campusekoak), azken hiru ikasturteetan (2017-18, 2018-19 edo 2019-20) unibertsitate titulu ofiziala lortu duten pertsonak edo 2020-21 ikasturtean UPV/EHU gradu edo masterreko azken ikasturtean matrikulatuta egon direnek garatutako enpresa ideiak edo proiektuak laguntzeko.

5.1.2 Ekintzailtzako prestakuntza jardueren eta unibertsitate komunitatetik sortzen diren ideia berritzaileak lagundu eta babesteko jardueren eskaintza indartzea.

Ekintzailtzari lotutako gaitasunei buruzko prestakuntza emateko tailerrak eta jardunaldiak egin dira. Arabako Campuseko 88 kidek baino gehiagok parte hartu dute.

Laguntza eta aholkularitza eskaini zaie Arabako Campuseko enpresa haztegiko ekintzaileei.

Mintegian ezarritako enpresen ebaluazioa egin du horretarako ezarritako batzordeak. Guztiek aldeko txostena jaso dute beren jarduerari dagokionez.

5.1.3 Enpresa ekimenen garapena bultzatzea, sariak emanaz eta finantzaketa bilatzen lagunduz.

Arabako Campuseko unibertsitate-komunitateari zuzendutako Inizia Uniekintzailea Sariaren IX. edizioaren deialdia egin da, enpresa ekimen berritzaileak edo oinarri zientifiko eta teknologikoa duten enpresa berritzaileak bihurtzeko aukera gehien dituzten ekintzailtza proiektuak saritzeko. Campuseko unibertsitate komunitateko 2 emakumek eta 7 gizonek proposatutako 6 proiektuk hartu dute parte sari honetan.

T-IKER Sariaren II. ediziorako deialdia egin da, Arabako Campuseko irakasle eta ikertzaileei zuzenduta, enpresa ekimen berritzaileak edo ideia edo enpresa berritzaileak eta/edo oinarri teknologikoa dutenak bihurtzeko aukera gehien duten ikerketa proiektuak saritzeko. Saria eman gabe geratu da, izan ere, iritzi baita eskaera kopuru urriak ez zuela lehia bermatzen.

5.1.4 Araban ekintzailtza sustatzen duten erakunde eta instituzioekin (Araba Ekintzailea) lankidetzan aritzea eta eskaintzen dituzten zerbitzuak ikasleen eta irakasle eta ikertzaileen artean zabaltzea.

Ekintzaileen arteko harremanak sustatzeko eta tokiko mintegien sare bat sortzeko hainbat ekintza bateratu diseinatu eta gauzatu dira (Gasteizko Udala eta BIC Araba).

Araba Ekintzailearen XX. edizioan parte hartu dugu, ekimen ekintzaileentzako sarien ebaluazio batzordeko kide gisa eta "zure ideiak 2021 kontua" lehiaketaren alde.

Lankidetzan jardun gara BIC Araba erakundearekin, urteko Lankidetzaz Hitzarmen Espezifikoa sinatu delarik, ekintzaileak sustatu, aholku eman eta laguntzeko programak egin daitezzen, eta egoitza teknologikoa Arabako Campusean duten enpresak sortzeko (INIZIA ArabaCampus programa).

5.1.5 CERN IdeaSquare Workshop "Design the Future" antolatzea BIC Arabarekin eta Ikerketa Nuklearrerako Europako Zentroarekin (CERN) lankidetzan.

Azaroan, 2 astez, diziplina anitzeko eta pentsaera ekintzailea duten UPV/EHUren Arabako Campuseko 23 ikaslek (8 emakumek eta 15 gizonak) CERNen (Conseil Européen pour la Recherche Nucléaire) CBI (Challenge Based Innovation) programan parte hartu dute taldeetan, Genevan (Suitza), Nazio Batuen Erakunde Eragileei lotutako proiektu berritzaile bat egiteko helburuarekin.

Proiektua egiteko, hautatutako pertsonak formatu birtualean jaso dute prestakuntza, CERNekeko pertsonalaren eskutik. Proiektuak amaituta, dagokion deialdian ezarritako prozedura eta balorazio irizpideekin bat etorrira, horretarako ezarritako batzordeak proiektuak ebaluatu ditu, eta hobekien baloratutako biek 2.000 euroko saria jaso dute. Horrez gain, 1.000 euroko saria banatu da taldeak hobekien baloratutako pertsonen artean (pertsona bat talde bakoitzeko).

5.2. I. Enplegarritasun Plana garatzea.

5.2.1 Campusetako enplegu gunei laguntzea, bertan programatzen diren prestakuntza, orientazio eta bitartekaritza ekintzak hedatzen, antolatzen eta garatzen, enplegarritasuna bultzatzeko eta laneratzea sustatzeko.

UPV/EHUko Praktika eta Enplegarritasun Zuzendaritzarekin eta UPV/EHUko Enplegu Guneekin lankidetzan, hainbat ekintza garatu dira Arabako Campusean laneratzeari dagokionez, besteak beste:

- “Hezkuntzatik lan mundurako trantsizioa” programa (Eusko Jaurlaritzaren antolatze eta kudeatzeko lanetan parte hartu da, ikasleek praktikak egin ditzaten enpresa eta erakundeetan, non 660 ikasleek parte hartu duten (Arabako Campuseko 90 ikasleek).
- Erasmus+ Epez XIII ikasle egresatuentzako mugikortasun-programa. Programa horren bidez, UPV/EHUko 40 graduatuk (Arabako Campuseko 6 graduatuk) prestakuntza praktikak egin dituzte Europako enpresetan.
- “Erasmus+ IkaslePraktikak” mugikortasun programan hartu da parte. Honen bidez, UPV/EHUko gradu, master eta doktoregoko 19 ikasle (6 Arabako campusekoak) praktikak egin dituzte Europako enpresa eta erakundeetan.

5.2.2 Ikasle graduatuen eta enpresen arteko lan bitartekaritza sustatu, campuseko ikastegiaren lankidetzaz.

UPV/EHUko Praktika eta Enplegarritasun Zuzendaritzarekin lankidetzan, campuseko ikastegiari laguntza eman zaie borondatezko praktikak kudeatzeko eta GAUR-PRAKTIGES plataforma erabiltzeko. 2020-21 ikasturtean, 600 praktika egin dira campusean.

5.2.3 Enplegu-Gune 2020 antolatzea (Vitoria-Gasteizko Enpleguaren Foroa), Vitoria-Gasteizko Udalaren Enplegua eta Garapen Ekonomiko Iraunkorra Sailarekin lankidetzan.

Pandemia dela eta, Vitoria-Gasteizko Enplegu Gune Foroaren XI. edizioa horretarako sortutako plataforma birtual baten bidez egin da. Plataforma hori herritarrek ikusteko epea apirilaren 27tik maiatzaren 20ra bitartekoa izan da, eta jardunaldi nagusi bat maiatzaren 13an egin da. Jardunaldi horretan, streaming bidezko prestakuntza (tailerrak) eta orientazio jarduerak (tutoretza pertsonalizatuak) egin dira. Guztira 1.700 pertsona baino gehiago erregistratu dira plataforman, baina erregistro hori programatutako jardueraren batean parte hartuz gero baino ez zen nahitaezkoa, eta informazioa eskura zitekeen erregistro hori egin beharrik gabe.

Maiatzaren 13ko jardunaldian, erakusketa espazio birtualen bidez, 58 enpresak eta 3 erakunde parte hartzaileak (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea eta Teknologia Parkea) parte hartzaileen eskura jarri dira zuzeneko txat formatuan.

Aldi berean, bistaratzealdi osoan zehar, plataforma birtualaren bidez, pertsonen postontzi sistema baten bidez erakunde eta enpresa parte hartzaileei kontsultak egin ahal izateko baliabideak eskaini dira, eta, gainera, edizio honetan kudeatutako eskaintza guztiak ikusi ahal izan dituzte, 208 lan aukera (413 lanpostu), www.empleo-gune.org webgunearen bidez.

6. Kalitate, prebentzio eta ingurumen programak

6.1. Suteak atzemateko sistemak eta alarmak hobetzea.

Farmazia Fakultatearen sektorizazioa hobetzeko 2. fasea gauzatu da.

Zenbait hobekuntza jarduketa egin da, hala nola BIES ordezkatzeara arautegira egokitzeagatik eta presio taldea instalatzea Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen Kirola Atalean.

Era berean, kontrolerako erakunde baimenduen (KEB) ikuskapenak egin ondoren, ikuskapen horietan antzemandako lan zuzentzaileak amaitu dira.

Suteen aurkako ekipoak berritu dira zenbait ikastegitan, iraungitasun data kontuan hartuta.

6.2. Larrialdietako planak eguneratu eta simulakroak antolatu, lanerako zehaztutako egutegiari jarraituz.

Eguneratu egin dira Letren Fakultatearen eta bertako pabiloi erantsiaren, Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen (egoitzaren eraikina eta Kirol Atala), Errektoreordetzaren eraikinaren, pabiloiaren eta Farmazia Fakultatearen autobabes planak.

Aldian-aldian egiten ari den bezala, campuseko ikastegi eta eraikinetako larrialdi taldeen egoera berrikusi da, izendapenak eguneratzeko, hala badagokio.

Ebakuazio simulakroei dagokienez, pandemia egoera dela eta, ez da jarduera hori egin 2020ko ekitaldian, ez eta 2021eko lehenengo seihilekoan ere, elkarguneetan jende pilaketa saihesteko. Pandemiaren bilakaeraren arabera, 2021-22 ikasturtearen hasieran egiteko aukera baloratuko da.

6.3. Arauzko eta maiztasun jakin bateko ikuskatzeak egitea, eta neurri zuzentzaileak ezartzea, hala badagokio.

Campuseko hainbat igogailuren aldizkako ikuskapenak egin dira, bai eta BT koadroen ikuskapenak ere. Ikuskapen horiek egin ondoren, ondoriozko neurri zuzentzaileak gauzatu dira.

6.4. Dokumentazioa inprimatu ordeztuz, dokumentazio digitalaren erabilera bultzatzea, eta igorpen tasa txikiagoko garraio publiko osasuntsuaren erabileraren alde egitea.

Paperaren erabilera murrizteari dagokionez, sinadura digitalaren erabilera zabaltzen ari da Campuseko Errektoreordetzaren jarduketetatik eratorritako dokumentazio osoan, bai barruan bai kanpoan.

Arabako Foru Aldundiarekiko konpromisoa berritu da, dagozkion emakiden titular gisa, campusaren inguruan 15 (Gasteiz/Amurrio/Laudio), 18 (Gasteiz/Durango) eta Bilbo/Gasteiz lineetako autobus geralekuak izan daitezen. BEI autobusa martxan jartzeagatik ezarritako aldaketak direla eta, erabiltzaileen zama lanak Agirre Miramon kalean egingo dira. 5. linearen (Gasteiz/Dulantzi/Araia), 6. linearen (Gasteiz/Kanpezu-Kanpezu/Lizarralizarra), 7. linearen (Gasteiz/Armentia Benta/Lagran) eta 9. linearen (Gasteiz/Logroño, Herreratik edo Bernedotik) kasuan, Gasteizko irteera geralekua Aguirre Miramon kalean egingo da, eta Gasteizera iristeko geralekua Zumabide kaleko (Aragoi kalea) bidegurutzean egingo da.

Era berean, Ingeniaritza Eskolan bizikleta aparkaleku berri bat instalatuko da.

Asmoen protokolo bat sinatu da UPV/EHUren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren artean, Mobility Lab izeneko mugikortasunaren eta

logistikaren arloko berrikuntza polo bat sortzeko lankidetzaren helburu duena, Arabarako eta Gasteizerako politika eraldatzaileetan erreferente izango dena.

7. Unibertsitate hedakuntza

7.1. Kultur hedakuntzarako jarduerak.

7.1.1 EHUkultura Araba programaren programazioa eta garapena, literatura, zinema eta musika lehiaketak, kultur ikastaroak, liburu aurkezpenak, erakusketak, antzerkia eta musika kontzertuak barne hartzen dituena.

Pandemia egoerak nabarmen eragin die EHUkultura programako jarduerari. Bertan behera geratu dira hasiera batean programatutako musika kontzertu, kultur ikastaro eta antzerki emanaldi guztiak. Salbuespen bakarrak hauek izan dira: batetik, AUIT elkarteak 5 proposamen eszeniko egin ditu ikasturtean zehar: "Mujeres en la cornisa", "Vidas privadas", "Teatro del absurdo", "Un ligero malestar", eta "Tres sombreros de copa/Ubu rey". Bestetik, martxoan bi erakusketa antolatu dira Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolarekin elkarlanean:

- "Ez zaitut ulertzen" erakusketa proiektua, arte gaztea eta zurezko artea.
- "Ura" erakusketa proiektua, akuarela bidezko artea.

7.1.2 Campus V.O. programazioa. Jatorrizko bertsioko film emanaldiak antolatu beste erakunde batzuekin batera.

Ikasturte honetan, lankidetzan aritu gara Raíces de Europa elkarteak martxoaren 3tik 7ra egin duen nazioarteko zinemaldiarekin (REIFF 2021 Zinemaldia).

7.1.3 Alderdi sozioekonomikoei eta soziopolitikoei buruz eztabaidatzeko konferentziak eta mintegiak antolatzea.

IRAGARRI Elkartearekin lankidetzan, "Bizitzaren amaierako sufrimendua: nola aurre egin?" hitzaldi zikloa antolatu zen urtarrilaren 15ean, 22an eta 29an Vital Fundazioko Kulturuneko (Dendaraba MZ) aretoetan.

7.1.4 Gizarteko kultura eragileekin lankidetzaren hitzarmenak gara daitezela sustatzea.

Lankidetzaren hitzarmen bat sinatu da Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolarekin, arte diziplinak antolatu, sustatu eta zabaltzeko.

7.1.5 Unibertsitate elkarten lankidetzaren eta sorreraren bultzatzea, EHUkulturararen organigramarekin bat egin dezaten.

Ikasturte honetan ez da kultur elkarte berririk sortu, baina jarraitu egiten da dagoeneko existitzen diren elkarteekiko lankidetzan: IRAGARRI elkarte, EHUTERPE unibertsitateko abesbatza elkarte, Antzerki Ikerketarako Unibertsitate Ikasgela kultura elkarte eta The Vitorian Society.

7.1.6 Campusean kultur jarduerak (biltzarrak, mintegiak, tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak) bultzatu, laguntzak emateko deialdien bidez.

Era berean, 34 laguntza eman ditugu Campusean biltzarrak, mintegiak, ikastaroak eta kultura jarduerak antola daitezela.

7.2. Unibertsitatearen irudia zabaltzeko jarduerak.

Gure erkidegoan zinema, musika eta literatura sustatzeko kultur lehiaketak bultzatzen jarraitu dugu, honela laburbilduta:

7.2.1 Iritzi artikuluen lehiaketaren deialdia.

Hainbat jatorritako egileen 112 lan aurkeztu dira guztira. Euskal Herriaz gain, Espainiako gainerako tokietatik ere iritsi dira artikulak, eta Argentina, AEB, Venezuela, Peru, Mexiko, Dominikar Errepublika, Kolonbia, Txile, Kuba, Alemania eta Uruguai hainbat autorek nazioartera zabaltu dute lehiaketa. Irabazlea "Telescopio desenfocado" izeneko lana izan da, COVID-19aren inguruko analisi originala. Egilea UPV/EHUren Letren Fakultateko ikasle egresatua da.

7.2.2 Ipuin laburren lehiaketaren deialdia (gaztelaniaz eta euskaraz).

29. edizio honetan, 283 ipuin jaso dira, horietako 24 euskaraz, Euskal Herritik ez ezik, kanpotik ere iritsita: adibidez, Madril,artzelona edo Malagatik... eta are urrunagotik ere, kasurako Mexiko, Venezuela, Kolonia, Portugal edo Italiatik. Gaztelaniaz "El presupuesto" eta euskaraz "Tentuz" idazlanak izan dira epaimahaiak aukeratutako lanak.

7.2.3 CORTADA antolatzea, Gasteizko XXIV. Film Laburren Jaialdia (EHUSKARABANDAREN bideo-maratoi deialdia barne).

Jaialdia abenduaren 16tik 19ra bitartean egin da, formatu hibridoan, FESTHOME plataformaren bidez online jarrai zitezkeen aretoko proiektioekin. 357 film labur aurkeztu dira, eta horietatik 56 aukeratu dira. Berrero ere, erakunde batzuen babesaz izan dugu, hala nola Vitoria-Gasteizko Udalarena eta Vital Fundazioarena.

Pandemia dela eta, EHUSKARABANDAREN 2020ko edizioa online egin da. Aurtengo edizioan 11 taldek parte hartu dute (55 parte hartzaile).

7.2.4 Unibertsitateen campus arteko MUSIVERSIKA III. Musija Jaialdiaren deialdia.

Pandemia dela eta, lehiaketa hau online formatura pasa da, lehiaketaren epea luzatuz. Finala irailaren 16an izan da Jimmy Jazz aretoan eta streaming bidez jarraitu ahal izan da. Musiversika - Unibertsitate Musikaren III. Lehiaketaren antolakuntzak SILITIAri eman dio lehenengo saria, NIZERI bigarrena, eta publikoaren saria eman gabe geratu da.

7.3. Kirol jarduerak.

7.3.1 Lehiaketetan parte hartzea.

Arabako Campuseko ikasle bat hautatu dute Munduko Unibertsitate Xake Txapelketa Birtualean parte hartzeko, 2020ko urrian lehiatu delarik. UPV/EHU izan da Poloniako Bydgoszcz hiritik antolatutako lehiaketan parte hartu duen estatuko bost unibertsitateetako bat. Txapelketa hau, ofizialki "2020 FISU WUC

Mind Sports" deitua, kirol mentalen kategorian dago. Sailkapen orokorrean, UPV/EHUko taldeak postu garrantzitsua lortu du.

UPV/EHUko Xake Birtualeko Ziber-Maratoi Txapelketa. Guztira 49 ikaslek parte hartu dute Arabako Campusean (13 emakume eta 36 gizon). Txapeldunordea campus honetako ikasle bat izan da.

Pandemia egoera dela eta, 2020-21 ikasturtean ezin izan da aurrez aurre egin azken urteetan egin diren kirol txapelketetako bat bera ere: campuseko barne txapelketa, UPV/EHUko txapelketa, Euskadiko txapelketa, Espainiako txapelketa eta Zabalki nazioarteko pilota txapelketa. Arrazoi beragatik, ezinezkoa izan da Kirolaren eta Osasunaren Astea antolatzea, Campuseko Lasterketa barne.

7.3.2 Lauhileko ikastaroak eta beste kirol jarduera batzuk.

Modu berritzailean, martxa nordikoko programa bat ezarri eta garatu da, eta 36 pertsonak hartu dute parte (35 emakume eta gizon 1). Gehienez 6 laguneko taldeak osatu dira, eta uneoro mantendu dira Eusko Jaurlaritzak ezarritako segurtasun neurriak.

Arabako Campuseko jarduera fisikoko programa orokorra streaming bidez garatu da, ezinezkoa izan baita aurrez aurre egitea. Programa honetara web orriaren bidez sartzeko aukera unibertsitate komunitate osoari irekita egon da. Jarduerak unean-unean parte hartze nabarmena izan badu ere, parte hartzaileek ez dute lortu atxikimendu iraunkor eta normalizaturik. Egiaztatu da parte hartze maila klimatologiak eragin duela.

Pandemia egoeraren testuinguruan, Arabako Campuseko unibertsitate komunitate osoaren praktika fisikoa eta osasuna sustatzeko eta sustatzeko, 2020-21 ikasturtean programa berriak jarri dira abian telematikoki:

- MendiErronka: kirola aire zabalean egiteko eta Euskal Herriko mendiak ezagutzeko proposamena da. Programa honetan 70 pertsonak parte hartu dute (49 emakume eta 21 gizon).
- EHUkirola #ZuenErronka:UPV/EHUko unibertsitate komunitateko kideak beren trebetasun eta trebetasun fisikoak partekatzerara bultzatu eta

animatu nahi dituen programa da. Guztira, 315 erronka gainditu dira, eta 66 pertsonak parte hartu dute (40 emakume eta 26 gizon).

- Gym birtuala: azken programa honen helburua da gure unibertsitatea osatzen duten pertsonak nahi dutenean eta nahi duten lekutik jarduera fisikoa egin ahal izatea. 308 pertsonak parte hartu dute (259 emakumek eta 49 gizonek), eta programa zabalik egon da udan.

Lankidetzaz hitzarmena mantendu da Gasteizko Udalarekin, unibertsitate komunitatean kirola irakasten eta sustatzen laguntzeko. Hitzarmen horren bidez, Arabako campusak bere jarduerak garatzeko behar diren instalazioak eta kirol espazioak ditu, bai eta udal tasetatik salbuesteko aukera ere.

Kirol Bidean Udaz Kanpaina sustatu da Naturako Jardueren programaren barruan. Udazken neguko programa pandemia egoerak baldintzatu du eta udako programa irailera arte garatu da. Jarduera horretan 46 pertsonak hartu dute parte guztira (26 emakumek eta 20 gizonek).

Halaber, lankidetzaz hitzarmenak sinatu dira 25 gimnasio edo itunpeko kirol zentrotan, eta 294 parte hartzaile izan dira (192 emakume eta 102 gizon).

Mendiko autobabesari eta segurtasunari buruzko aurreko ikastaroa. Ikastaro hau bi aldiz programatu da, Eusko Jaurlaritzako Larrialdietako Zuzendaritzarekin eta Euskal Mendizale Federazioarekin elkarlanean, baina, pandemia dela eta, ezin izan da gauzatu. Nabarmentzekoa da 60 pertsonak eman zutela izena (38 emakumek eta 22 gizonek).

35 akreditazio eman zaizkie Arabako Campuseko goi mailako eta errendimendu handiko unibertsitate kirolarientzako tutoretza planean parte hartzeko eskatu duten ikasleei (16 emakume eta 19 gizon).

EHUkirola Araba programako kirol jardueretan parte hartzeagatik graduiko ikasketetako kredituak aitortzeko ziurtagiria izapidetu zaie guztira 361 ikasleri (276 online eta 85 aurrez aurre).

7.3.3 EHUosasungarriari lotutako jarduerak garatzea (mintegiak, jardunaldiak, hitzaldiak eta jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak).

UPV/EHUren Hezkuntza eta Kirol Fakultatearekin eta Arabako Kirol Federazioen Elkartearekin (AFDA) elkarlanean aritu gara "Jarduera Fisikoa, Nutrizioa eta Psikologia: taldean lan eginez pertsonaren osasunerako" jardunaldiak antolatu eta garatzeko. Streaming bidez egin da eta 76 pertsonak hartu dute parte (56 emakume eta 20 gizon).

Hainbat erakunderekin batera lan egin da, hala nola Estadio Fundazioarekin, jarduera fisikoaren, osasunaren, kirolaren, jasangarritasunaren, desgaitasunaren, kirol psikologiaren eta abarren kulturari buruzko solasaldiak, hitzaldiak eta zineforumeko saioak eskaini ahal izateko. Ikasturte honetan, guztira, 13 hitzaldi antolatu dira, eta horietan 19 parte hartzaile izan dira (17 emakume eta 2 gizon), bai eta 4 filmen ziklo bat ere, zeinetan bost emakumek parte hartu baitute.

Bi jarduera espezifikoko horiez gain, kapitulu honetan, oro har, 7.3.2 atalean deskribatutakoak ere sar litezke.